



ZARAUZKO UDALA

UDAL BARATZEEN ERABILERAREN BAIMENA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA

ZIOEN AZALPENA

2010eko abenduan behin betiko onartu zen UDAL BARATZEEN EMAKIDA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA, eta 2011ko urtarrilaren 26an sartu zen indarrean. Orduan hasi ziren udal partzelak herritarren eskura jartzen aisialdiko baratze moduan erabiltzeko.

Erregelamenduaren helburua zen udal lurzoru batzuk erabiltzea eta horiei balioa ematea, eta pertsona interesdunei partzela batzuk lagatzea aisialdiko baratze moduan erabiltzeko.

Partzela horiek Udalaren ondarezko ondasunak dira, eta erregelamendu honek horien erabilera-baimena, kudeaketa eta ikuskapena arautzen ditu.

Ia 10 urte funtzionamenduan izan ondoren, pilatutako esperientziak frogatu du beharrezkoa dela baratzeen erabilera arautzea eguneratzea eta egokitzea, interes orokorra eta partzeletan egiten den erabilera partikularra bateratzeko.

Erregelamenduaren idazketa berriak ingurumen irizpideetan eta sozialetan sakontzen du. Eta herritarren eskariari erantzuteaz gain, nekazaritza ekologikoa sustatu nahi du.

Partzela horiek etxeko erabilerarako bakarrik lagako dira. Baratzeak araudi honetan jasotako irizpideen arabera landuko dira; horrenbestez, debekatuta dago bertatik ateratako produktuak saltzea.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

Erregelamendu honen xedea da udal baratzeen erabilera-baimenak arautuko dituzten xedapenak ezartzea. Erabiltzaileek zein Zarauzko Udalak bete egin beharko dituzte xedapen horiek.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua

Behin-behinean aisialdirako baratze modura erabiliko diren Zarauzko Udalaren jabetzako lursail orotan aplikatuko da honako erregelamendu hau.

3. artikulua.- Eskumenak eta ikuskapena

1.- Zarauzko Udalak egingo ditu erregelamendu honek araututako udal jabetzako lursailen erabilera egokia ikuskatzeko eta zaintzeko zeregin teknikoak.

2.- Zeregin teknikoetan sartzen dira baratzeak antolatzeko proiektuak egin eta onartzea, eta baratzeen eta haiei lotutako azpiegituren eta espazioen kontserbazioa, konponketak eta mantentze-lanak.

3.- Udal zerbitzu teknikoa, Udaltzaingoa edo Udalak horretarako izendatutako edo jarritako beste edozein bitarteko arduratuko da araudia betetzen dela zaintzeaz. Eta bere zeregin nagusia izango da partzelak eta horiei lotutako azpiegiturak ondo erabiltzen eta aprobetxatzen diren ikuskatzea.

4.- Egiten diren arau-hausteak salatu ahal izango dituzte zaintzaz arduratzen diren langileek, eta arau-hausleak eta arau-hausteari buruzko datuak adieraziko dituzte.

4. artikulua.- Organo eskuduna

Alkatetza izango da baimenak emateko eta kentzeko eta erregelamendu honetan jasotako aginduak interpretatzeko organo eskuduna, egiten dituen delegazioei utzi gabe.

II. KAPITULUA ERABILERA-BAIMENEN ARAUDIA

5. artikulua.- Baratzeak erabiltzeko eskubidea

Zarauzko udalerrian erroldatutako adin nagusiko pertsona orok izango du erregelamendu honetan adierazitako udal baratzeen erabiltzaile izateko eskubidea.

- a) Baratzeen erabilera prekarioan emango da. Erabilera-baimenak ez du sortuko titulu edo eskubide errealik.
- b) Hau izango da esleipenerako lehentasun-hurrenkera:
 - 1- Udal okupazio batek eragindako baimena duten pertsonak.
 - 2- Erretiratuak edo pentsiodunak.
 - 3- Langabetuak.
 - 4- Lan aktiboan daudenak.
- c) Gipuzkoako lurralde historikoan lurren bat jabetzan edo errentan daukanak ez du eskubiderik izango Zarautzen udal baratze bat erabiltzeko.
- d) Pertsona bakoitzari baratze bakar baten erabilera baimenduko zaio.
- e) Bizikidetzaren unitate bakoitzari baratze bakar baten erabilera baimenduko zaio.

6. artikulua.- Esleipen-irizpideak

Pertsona interesdunek edozein unetan eskatu ahal izango dute udal baratze baten erabilera, nahiz eta une horretan partzela librerik ez egon.

Zerbitzu eskudunak irekita edukiko du eskatzaileen zerrenda bat. Partzelak eskuragarri egon ahala, zerrenda horretan izena emandakoei esleituko zaizkie. Baldin eta, baimenak emateko unean, eskaera-kopurua handiagoa bada libre dauden baratzeen kopurua baino, hutsik dauden baratzeak aurreko artikuluan adierazitako lehentasun-hurrenkeraren arabera eskainiko dira, eta talde bakoitzaren barruan zozketa bidez. Edozein eskatzailek, udal zerbitzuetara deituta, informazio eguneratua lor dezake talde bakoitzeko eskaera-kopuruari buruz, hurrengo zozketei buruz, edo hutsik dauden baratzeen esleipenei buruz.

Eskatzaileak honako hauek aurkeztuko ditu:

- Izena eta abizenak, eta NAN edo AIZ.
- Jakinarazpenak egiteko helbidea.
- Telefono zenbakia eta/edo helbide elektronikoa.
- Erretiratua edo langabea dela frogatzeko agiriak, hala bada.
- Jarritako kanona ordaindu duela frogatzeko agiria, hala eskatzen zaionean.

Dokumentazio hori aurkezteko eskatuko zaio, eta adierazitako epean ez baditu betetzen bete beharreko baldintzak, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta hurrengo pertsonari eskainiko zaio, lehentasun-hurrenkeraren arabera.

7. artikulua.- Baimenaren indarraldia

Araudi honen babesean ematen diren baimenak urtez urte luzatuko dira, automatikoki, gehienez hamar urte egin arte, baldin eta baimena iraungitzen, hari uko egiten edo baliogabetzen ez bada.

8. artikulua.- Erabilera beste bati lagatzeko debekua

Baratzearen erabilera ezingo zaio, inondik ere, hirugarren bati eskualdatu edo eman.

Debekatuta dago baratzea beste pertsona batek osorik edo partzialki okupatzea edo erabiltzea, ezta aldi baterako ere, aldezturik udal zerbitzuen baimenik eduki gabe.

9. artikulua.- Baimena bukatzeko arrazoiak

Udalak berariazko ahalmena izango du bere kabuz edozein erabilera-baimen edo baratzeen okupazioari buruzko izatezko edozein egoera bukatu dela adierazteko.

Udalak partzelok libreki eskuratzeko duen ahalmenari utzi gabe, hauek izango dira baimenak bukatzeko arrazoiak:

- 1.- Titularra hiltzea edo ezintasunen bat izatea.
- 2.- Erabiltzaileak bere borondatez uko egitea.
- 3.- Zarauzko Biztanleen Udal Erroldan baja ematea.
- 4.- Udalak erabili beharra izatea, udal jarduerak egiteko edo interes publikoko beste arrazoi batzuegatik.
- 5.- Baimena baliogabetzea, organo eskudunaren ebazpenaren bidez.

Baimena bukatzen denean, erabiltzaileak baratzea erabiltzeari utziko dio, eta hutsik eta erabilera-baldintza egokietan lagako du. Orduan, baratzea Udalaren esku geldituko da, eta ez da kalte-ordainik edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik egongo.

Udalak aukera izango du baratzearen jabetza bide administratiboan berreskuratzeko, eta bere kabuz bidaltze administratiboa erabakitzeko eta gauzatzeko, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan jasotako arauen arabera.

10. artikulua.- Uko egitearen eta baliogabetzearen ondorioak

Pertsona batek uko egiten badio baratze bat erabiltzeko baimenari, ezingo du beste baimenik eskatu ukoa efektibo egin denetik urtebete pasatu arte.

Organo eskudunak lehendik emandako erabilera-baimen bat baliogabetzea erabaki dezake, erregelamendu honetan aurreikusitako arrazoiaren batengatik.

Organo eskudunaren ebazpen bidez baimena baliogabetu zaien erabiltzaileek ezingo dute eskatzaileen itxaron-zerrendan izena eman, erabileraren baliogabetzea formalizatu zenetik bost urte pasatu arte.

Baimena baliogabetu zaion pertsona batek partzelaren bat erabiltzen badu (baimendutako beste pertsona batzuen adostasunarekin edo ezaguerarekin), baimena baliogabetuko zaie iruzurrean parte hartu duten pertsona horiei ere.

11. artikulua.- Kanona

Baimendutako pertsonak 50 euroko kanona ordainduko du, baratzea erabiltzen hasi aurretik. Kanon hori ezingo da erreklamatu, baimena bukatu ondoren.

Kanonaren zenbatekoa Alkatetzaren dekretu bidez eguneratu ahal izango da.

III. KAPITULUA ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

12. artikulua.- Baratzeak erabiltzeko arauak

Baratze baten erabilera baimentzen zaion pertsonaren erantzukizuna izango da instalazioen mantenimendua eta horien osasungarritasun, segurtasun eta apaindura egokia.

Baratzeak erabiltzeko ondorengo baldintza hauek bete beharko dira, Udal Zerbitzu Teknikoek ematen dituzten beste jarraibide osagarriei utzi gabe:

- a. Erabiltzaileak baimendu zaion lursaila bakarrik erabili ahalko du baratzerako. Bertatik lortutako produktuak etxean kontsumitzeko izango dira; debekatuta dago horien salmenta.
- b. Ezin da zuhaitzik edo zuhaixkarik landatu. Udalak zuhaitzak eta zuhaixkak moztu ditzake, baldintza hau betetzen ez duten erabiltzaileei aurretik abisatu gabe.
- c. Baratzeetan debekatuta dago animaliak eduki, zaindu, hazi edo ustiatzea, edo maskotak egotea (lotuta edo aske).
- d. Baratzeetan debekatuta dago txabolak edo edozein eraikuntza mota jartzea. Salbuespen gisa, partzela bakoitzean kutxa bat jarri ahalko da (gehienez 0,8 metroko altuera, 2 metroko luzera eta 0,8 metroko sakonerakoa). Jarri aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoen oniritzia jaso beharko du.
- e. Gainera, hondakinak konpostatzeko berariazko biltegi bat erabili ahal izango da, edo, bestela, konpostagailu bat. Konpostagailuen hondoa metalazko sarearekin babestuta egongo dira.
- f. Debekatuta dago paisaia hondatzen duten elementuak jartzea; besteak beste, bidoiak, gordailu osagarriak, txapak, bereizgailuak, parrillak edo negutegiak. Era berean, debekatuta daude itzala sortzeko instalazio iraunkorrak, altuerako landaketei eusteko egiturak, negutegi txikiak edo mintegiak, edo horien antzeko beste edozein instalazio.
- g. Denboraldiko laboreetan (tomateak, lekak edo babarrunak) erabiltzen diren egurrezko edo kanaberazko altuerako euskarriak kendu egingo dira, uztaren ondoren.
- h. Elikagai hauen hondakinak ezingo dira konpostatu: haragiak, arrainak, edo arratoi- edo intsektu-izurriak ekar ditzaketen beste produktu fresko batzuk edo usain txar gehiegizko edo nabarmena sortzen dutenak.
- i. Guztiz debekatuta dago udal baratzeen instalazioetan edo inguruetan edonolako hondakinak botatzea.
- j. Erabiltzaileek baratze ingurura eramandako hondakin organiko eta inorganiko guztiak (egurra, plastikoa, kanaberak, lokarriak, agregakinak, kristalak, ontziak, oihalak, kartoiak, poltsak...) berriz ere bere jatorrizko lekura eraman behar dira, eta erabiltzailearen bizilekuari dagozkion edukiontzietan botako dira, edo, bestela, Garbigunen edo hondakin-bilketako puntuan. Partzela bakoitzean egiten den konposterako behar diren hondakinak bakarrik onartuko dira.

13. artikulua.- Mugak eta sarbideak

Une oro errespetatuko dira Udalak baratzeari jarritako mugak.

Baratze baten eta beste baten artean ur-bideak eraiki daitezke, partzelak mugatzeko eta, batez ere, lursailetatik soberako ura ateratzeko. Ez dira onartuko sarbide-pasabideak oztopatzen dituzten ur-bideak edo hustubideak.

Baratzeak zabalik egongo dira, eta, udal baimenik ez badago, ezingo dira itxi, tartean hesolak edo beste elementu batzuk jarrita.

Erabiltzailea arduratuko da baratzeke sarbideak egoki edukitzeaz, eta horretarako behar diren mantentze-lanak egingo ditu aldian-aldian, baita landarediaren mozketak ere.

Hauxe da erabiltzaileak egoera onean eduki behar duen sarbidea: baratzearen mugakide den sarbide zatia eta baratzearen perimetro osoan hurbilen dagoen espazioa, hustubideak sartuta. Bidegurutzak, iturri-inguruak eta gainerako espazio komunak ere egoera onean edukiko dituzte zona bakoitzetik hurbilen dauden erabiltzaileek. Aldi berean, Udalak ere mantentze-lanak, muga aldaketak edo beste edozein esku-hartze egin dezake.

14. artikulua.- Ureztatzeko uraren erabilera

Ezingo da putzurik ireki, ez eta errekatik ura mekanikoki hartu ere.

Nolanahi ere, ureztatzeko ura eskuzko bitartekoen bidez baino ez da lortuko. Debeekatuta dago mahukak erabiltzea.

Udal baratzeetan dauden ureztatze-sistema automatikoak, ponpa bidezkoak edo mahukak kendu ahalko ditu Udalak.

15. artikulua.- Baratzezaintza ekologikoa bultzatzea

Udalak baratzezaintza ekologikoa sustatuko du, interesdunei prestakuntza eskainiz eta bere erabileraren aldeko baliabide materialak jarritz.

Baratzeen erabiltzaile guztiek Udalak jartzen dituen baldintzak bete beharko dituzte; esate baterako, espezie jakin batzuk landatzea, laborantza jakin batzuk egitea, substantzia berriak gehitzea, ongarri naturalak, produktu fitosanitarioak, eta abar, Nekazaritza Ekologikoari buruzko EEE 2092/1991 Erregelamenduak bere printzipioetan eta/edo gaiari buruzko ondorengo eguneratzeetan adierazitakoaren arabera.

Erabat debeekatuta dago herbizida sintetikoak erabiltzea (esate baterako, glifosatoa).

16. artikulua.- Ibilgailuen erabilera

Instalazio guztien barruan (baratzeak, bide publikoak, komunen zonan, etab.) debeekatuta dago ibilgailu motordunekin zirkulatzea eta horiek aparkatzea, kanpoan horretarako jarritako espazioan izan ezik. Traktoreak eta nekazaritzarako ibilgailuak alde aurreko baimenarekin bakarrik erabili ahalko dira.

17. artikulua.- Komunikazioa

Baimenen titular diren pertsonak une oro aurkitzeko moduan egongo dira Udalarentzat, helbide elektronikoko edo telefono bidez.

**IV. KAPITULUA
IKUSKAPEN ZEREGINAK****18. artikulua.- Instalazioen ikuskapena**

Banakako edo taldekako erabilerako instalazio guztiak edozein unetan ikuskatu ditzakete berriaz izendatutako udal langileek, araudia ondo betetzen dela frogatzeko.

19. artikulua.- Kalteak eta galerak

Udala ez da izango hirugarrenen ekintzen erantzule (esate baterako, instalazioetan dauden produktuen eta erreminten lapurretak edo ekintza bandalikoaren ondoriozko kalteak).

20. artikulua.- Kalteak konpontzea presazko egoeretan

Segurtasunagatik edo udal organo eskudunaren ebazpenean behar bezala frogatutako arrazoiengatik, kalteen eta galeren konponketa ezin bada atzeratu, organo eskudunak agindu ahalko du horiek berehala konpon daitezela, alde erantzuleari dagozkion bideetatik erreklamatu behar zaion kalte-ordainari utzi gabe.

21. artikulua.- Baimena berrikusteko prozedura

Udal organo eskudunaren zeregina izango da baimenen baliogabetze-ohartarazpenak egiteko prozedura hastea, tramitatzea eta ebaztea, edo, halakorik bada, behin betiko baliogabetzea ebaztea.

Udaltzaingoak edo zeregin horretarako izendatutako zaindari-ikuskatzaileek egiaztatzen dituzten ekintzek froga-balioa izango dute, baldin eta salaketa-agirietan edo bestelako agiri publikoren batean bidezko lege betekizunak betez formalizatzen badira. Hala ere, administratuek ere beren eskubide eta interesen aldeko frogak aurkeztu ahal izango dituzte.

22. artikulua.- Kautelazko neurriak hartzea

Udal ordezkariak ikusten badute arau-hauste bat egin dela edo erregelamendu honetako II. kapituluan jasotako betebeharren bat ez dela bete, txosten bat egingo dute kasuaren

zirkunstantziak jasotzeko, eta ustezko arau-hausleari entzunaldia emango diote, dagokion ebazpena eman aurretik.

Ikuskatzaile-lanak egin dituenaren ustez, arau-haustea edo ez-betetzea larria baldin bada, dagozkion kautelazko neurriak jarri ahalko zaizkio erabiltzaileari, kalteak saihesteko edo minimizatzeko; besteak beste, baratzearen erabilera ukatu ahal zaio, hasitako diziiplina-prozedura ebatzi artean.

23. artikulua.- Baimena baliogabetzeko arrazoiak

Baimena baliogabetu egin daiteke, ondorengo gertakariengatik:

- Baratzearen instalazioen eta bere sarbideen mantentze-lanak ez egitea.
- Baratzean itxitura jartzea.
- Ibilgailuekin baimendu gabeko lekuetan ibiltzea edo aparkatzea.
- Ureztaketarako ur-hartze mekanikoak egitea edo mahukak erabiltzea.
- Baratzezaintza ekologikorako Udalak jarritako betebeharrak ez betetzea.
- Herbizida kimikoak erabiltzea.
- Baimendu gabeko elementuak instalatzea; besteak beste, txabolak, negutegiak, txapak, bidoiak, gordailuak, parrillak.
- Baratzekoak ez diren landaketak egitea, edo landareak landatu eta/edo mantentzea baimendu gabeko lekuetan.
- Baratzeari atxikitako udal ondasunak kaltetu edo lapurtzea.
- Baratze bakoitzari jarritako mugak aldatzea.
- Animaliak eduki, ustiatu edo haztea, eta maskotak egotea.
- Udalaren baimenik gabe baratzearen erabilera lagatzea, edo baratzea baimendu gabeko pertsonak behin eta berriz erabiltzen uztea.
- Baratzearen eta bere instalazioen ikuskapena egiten ez uztea udal langileei.
- Udal ondasunak lapurtzea edo guztionak diren instalazioetan kalteak edo apurketak eragitea.
- Landare psikotropikoak, kalamua, horien antzeko landareak eta espezie inbaditzaileak jartzea edo landatzea.
- Baratzean lortutako produktuak merkaturatzea.

- Baratzeetako erabiltzaileen arteko bizikidetza urratzea.
- Baratzearen zaintzan denbora luzez ez aritzea, aldez aurretik jakinarazi gabe eta horretarako dagokion udal baimenik eduki gabe.
- Baratzeen funtzionamendu egokia asaldatzen duen beste edozein ekintza edo omisio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2011ko urtarrilaren 26an indarrean sartutako UDAL BARATZEEN EMAKIDA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUAREN babesean emandako emakidei dagokienez, ondorengo prozedura jartzen da erabilera-baimena berritzeko:

Alkatetzaren dekretu bidez, baimen guztiak eten egingo dira, eta jarritako fidantzak itzultzeko aginduko da.

Erabiltzaile horiek bi hilabeteko epea izango dute orain arte erabiltzen aritu diren baratzearen erabilera-baimena eskatzeko. Baimenok erregelamendu honetan jarritako xedapenen arabera emango dira; eta horien artean dago 11. artikuluan jarritako kanonaren ordainketa.

Erabiltzaileek baratzeak erabiltzen jarraitu ahal izango dute, bitarte horretan.

Baimena berritzeko jarritako prozesu horren ondoren hutsik geratzen diren baratzeak 6. artikuluan jasotakoaren arabera esleituko dira.

LEHEN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Erregelamendu honek indargabetu egiten du UDAL BARATZEEN EMAKIDA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA, 2011ko urtarrilaren 7ko GAOn argitaratu (4 zk.) eta 2011ko urtarrilaren 26an indarrean sartutakoa.

BIGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Erregelamendu honek baliogabetu egiten ditu, baita, udal baratzeen erabilerarako emandako jarraibideak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko otsailaren 28an egindako bilkuran onartutakoak.